



COVID-19RAKO PROTOKOLOA (RUNNING TALDEAK)

La Blanca Klubak, protokolo honen bidez, helburu hau bete nahi du:

La Blanca Klubak antolatzen dituen kirol-jarduerak segurtasunez egitea, prebentzio- eta higiene-neurri egokiak hartuta, eta dagozkion jarraibideak ezarrita, zehazteko nola jardun beharko den COVID-19ari lotutako kasuak eta egoerak detektatzen badira.

- 1.- **Atleta guztiek maskara jantzita iritsi behar dute elkargunera.**
- 2.- **Jarduera guztian, saihestu egingo da parte-hartzaileen arteko kontaktu fisikoa, une oro segurtasun-distantzia gordeta.**
- 3.- **Jarduera hasi aurreko beroketa eta entrenamendu amaierako luzaketak maskara jantzita egingo dira, segurtasun-distantziari eutsiz eta 10 atleta baino gehiagokoak izango ez diren taldeetan.**
- 4.- **Entrenamenduan, gehienez 10 atleta egongo dira talde bakoitzean, eta segurtasun-distantzia gordeko dute.**
- 5.- **Jakiten bada parte-hartzailearen bat agian COVID-19aren birusaz kutsatuta dagoela, bertan behera geldituko da jarduera, eta osasun-agintariek esandakoari kasu egingo zaio.**
- 6.- **Ezinbestekoa da jardueran parte hartuko duten guztiek COVID-19ari buruzko onarpen informatua izeneko dokumentua irakurri eta onartzea, eta konpromisoa hartuko dute bertan agertzen diren jarraibide eta aholku guztiei men egiteko.**
- 7.- **Entrenatzaileak eskumena izango du parte-hartzailearen bat jardueratik kanporatzeko, baldin eta ez baditu betetzen COVID-19a ez kutsatzeko segurtasun-neurriei buruz emandako jarraibideak.**